

GASTEIZKO UDALERRIAN ANIMALIAK BABESTEARI ETA EDUKITZEARI BURUZKO ORDENANTZA

ZIOEN ADIERAZPENA

Ohiko fenomeno da gizarte guztietan etxean animaliekin biziarena, erro sendoko joera da gizakion artean. Azken urteetan, gainera, nabarmen areagotu da etxeetan bizi diren animalien kopurua.

Are gehiago, hainbat arrazoi tarteko, aldaketa-prozesua bizi du azken aldiaren gure gizarteak, animaliekiko errespetuaren, eta babes- eta ongizate-maila handiago baten aldeko sentsibilizazioaren bidean. Arrazoi horien artean, honakoak aipa daitezke: garapen sozial eta kulturean gora egin izana; animaliekiko beste harreman eredu batzuen eragina, gizarte anglosaxoi eta iparraldekoena; animaliak eskubideen subjektu gisa hartzen dituzten pentsamolde eta ildo ideologikoen eragina, etab.

Europako Batasunak ere egin du ekarpenik prozesu horretan, bereziki itxian bizi diren animalien babesaren alorrean. Hala erakusten dute batasuneko hainbat egintzek, honako hauek esaterako: Europako Legebiltzarren 1994ko urtarrilaren 21eko ebazpena, Batasuneko animalien ongizatea eta estatutuari buruzkoa; 95/29/EK zuzentaraua, garraioan animaliak babesteari buruzko 91/628/EE zuzentaraua aldatu duena; Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 998/2003 (EE) Erregelamendua, 2008ko maiatzaren 21ekoa, konpainiako animalien asmo komertzialik gabeko joan-etorrietan bete beharreko arau zoosanitarioak onartzen dituena... Nazioarteko esparruan ere aipatzekoa da Animalien Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala, UNESCOk 1977ko irailaren 23an onetsi, eta geroago Nazio Batuen Erakundeak berretsi zuena; agiri horrek animalien oinarritzko eskubideak biltzen ditu, eta animalien gaineko errespetua pertsonen artekoarekin lotzen du.

Animaliei buruzko udal ordenantzen helburu klasikoetako bat edukitzeari loturikoa da, hots, animaliak edukitzeak herritarren elkarbizitzan zuzen-zuzen eragin ditzaketen gatazka kudeatzeari loturikoa. Ideia nabarmenki praktikoa horren bidetik dator ordenantza hau ere; hartara, hainbat betebeharrak ezartzen dizkie animalien jabeei, animaliek gizartearen sor ditzaketen arriskuak gutxitu eta arintzeko asmoz, gizarte-elkarbizitza egokia bermatzeko asmoz eta animalien jabeen arduraz eta erantzukizunez jokatzaren garrantzia azpimarratuz, dela animaliekiko tratuan, dela bizikide diren udalerriko beste pertsonen kiko ere.

Edonola ere, helburu horrekin batera, ordenantza honek animaliekiko babes-izaera sustatu eta azpimarratu nahi du, bereziki animalien ongizatearen kontzeptua; hartara, animaliei beren izaeraren arabera bizi emango zaiela bermatu nahi du, bai eta higienari eta zaintzari nahiz babestu eta garraiatzeari dagokionez animaliek jaso beharreko gutxieneko arreta zehaztu ere.

Beraz, honako helburuak ditu ordenantza honek: animalien babes eta ongizate maila al-bait handiena lortzea, edukitze arduratsua bermatzea, eta animaliak bazterrerara uzten, behin eta berriro galtzen eta kontrolik gabe ugaltzen diren kasuak eragozteko, ingurumen osasunaren alorreko arriskuak gutxitu eta ondasun, animalia eta pertsonen lasaitasuna, osasuna eta segurtasuna zaintzearekin batera. Hortaz, tratuari, higienari eta zaintzari nahiz babestu eta garraiatzeari dagokionez animaliek jaso beharreko gutxieneko arreta zehazten du, eta establezimendu espezializatuak egonaldiei, osasun-laguntzari, merkaturatzeari eta saltzeari buruzko arauak finkatzen.

Animalien babesa bermatzeko ildotik, ordenantza honek animaliekiko sentiberatasun eta errespetua sustatzen lagundu nahi du, Gasteizko udalerrian gizarte modernoek berezki dituzten jarrerak piztuko dituen hezkuntza moldearen oinarriak ezarritik.

Sustapen lan horretan funtsezko zeregina dagokio Gasteizko Udalaren Armentia Animiak Babesteko Zentroari eta animaliak babesteko erakundeek; izan ere, benetan paper garrantzitsua jokatu baitute Gasteizen animaliekiko tratua alderantzizko sentiberatasuna zabaltzeko lanean.

I. TITULUA.- XEDEA, APLIKAZIO EREMUA ETA DEFINIZIOAK

1. artikulua.- Xedea eta aplikazio eremua

Animaliak babesteko, edukitzeko nahiz saltzeko arauak finkatzea du xede ordenantza honek, eta horien eta pertsonen arteko elkarbizitza harmonizatzea.

Animaliak babestu eta edukitzeari nahiz esperimenduak egiteko eta helburu zientifikoetarako erabiltzeari dagokionez Europan, estatuan eta autonomia erkidegoan indarrean dauden araudien esparruan aplikatuko da ordenantza hau. Era berean, arriskutsu izan daitezkeen animaliak edukitzea arautzen du, eta lizentziaren beharra, baldintza orokorrak eta erregistroen erregimena jasotzen.

Ordenantzaren aplikazio eremua Gasteizko udalerrria da, animaliak bertan errolatu edo erregistratuta egon ala ez, eta edozein delarik ere haien jabeen edo edukitzaileen bizilekua.

2. artikulua.- Definizioak

Ordenantza honi dagozkionetarako, definizio hauek baliatuko dira:

1. Jabea: Euskal Autonomia Erkidegoko edo beste autonomia erkidegoetako Animaliak Identifikatzeko Erregistro Orokorrean hala jasota ageri dena. Hala izan ezean, orobat joko da jabetzat identifikazio elektronikorik gabeko animalia bat duena, itxura guztien arabera haren jabe delarik.
2. Edukitzailea: jabe izan gabe ere, aldi batez animalia bat berekin duen pertsona, dela zaintzeko, dela berekin gordetzeko.
3. Etxeko animalia: bizirik irauteko gizakien laguntasuna ezinbestekoa dutenak.
4. Etxekotutako animalia: basoan eta aske jaiotako arren gizakiak ikustera eta lagun izatera ohitu eta orain bizirik irauteko haien laguntasuna ezinbesteko dutenak.
5. Animalia basatiak: basati bizi diren animalia autoktono nahiz autoktono ez direnak.
6. Hiriko animalia basatiak: hiri eta herrietako hiriguneetan bizi diren animalia basatiak, lurralde geografikoa pertsonekin partekatzen dutenak.
7. Itxian dauden animalia basatiak: basoan nahiz itxian jaiotako izan, gati-baldiko baldintzetan bizi direnak -baina ez etxekotuak izateko ikaskuntza-egoeran.
8. Arriskutsu izan daitezkeen animaliak dira:
 - a. Basatiak izanik ere etxe-abere edo konpainiako animalia gisa erabiltzen direnak, baldin eta, beren oldarkortasuna gorabehera, gizakiak edo beste animalia batzuk hiltzeko edo gauzei kalteak eragiteko ahalmena duten espezie edo arrazetakoak badira.
 - b. Halaber, arriskutsu izan daitezkeen animaliatzat joko dira arauak hala erabakitzen den etxe-abereak edo konpainiakoak; bereziki, ekainaren 1.eko 101/2004 Dekretuaren I. eta II. eranskinetan zehaztuta dauden espezieetako txakurrak, baita dekretu horren 10.1.c) artikulua ildotik halakotzat jotzen direnak ere.
9. Edukitzekotan baldintza bereziak bete beharra dagoen txakurtzat joko dira beren ezaugarri etologikoak direla eta udal agintariek edukitze erregimen bereziaren mende jartzen dituztenak.
10. Bazterrera uztea: edonork jabe den aldetik dagozkion betebeharrei uko egitea, onuradun jakinik izendatu gabe. Baita, animaliak dagokion identifikazioa daramalarik, jabeak edo hark baimendutako pertsonak horretarako ezarritako epean galdu denik salatu ez duenean ere.

11. Konpainiko animalia: Pertsonak, konpainia egin diezaien-eta tartean irabaziko jarduerarik izan gabe- normalean etxean eduki ohi duten etxeko animalia.

II. TITULUA.- HERRITARREN PARTE-HARTZEA ETA ANIMALIAK BABESTEKO ERAKUNDEAK. ANIMALIAK BABESTEKO ZENTROAK

3. artikulua.- Animaliak babesteko erakundeak

1. Ordenantza honetan xedatutakoaren arabera, animaliak babesteko erakundetzat joko dira legez eraturako irabazte xederik gabeko elkarteak, baldin eta beren helburu nagusien artean animaliak babestea badago.
2. Nagusiki elkarte horiekin hitzartu ahal izango ditu udalak animaliak babestera zuzendutako jarduerak, eta, bereziki, zerekin hauek:
 - a. Kaleko animaliak, galduak nahiz bazterrera utzitakoak, baita jabeek emandakoak, administrazioek konfiskatutakoak eta osasun arrazoiengatik bakartuta egon behar dutenak ere udalaren edo erakundearen instalazioetan jaso eta zaintzea.
 - b. Instalazio horiek bazterrera utzitako animaliak, jaberik gabek, administrazioek konfiskatutakoak edo osasun arrazoiengatik bakartuta egon behar dutenak zaindu eta tratatzeko erabiltzea.
 - c. Animaliak besteri lagatzeko izapideak egitea, Gasteizko Udalak finkatutako jarraibideak eta ordenantza hau aintzat harturik.
 - d. Hiriko katu koloniak nahiz bestelako basa animalien populazioak kudeatzea, Gasteizko Udalak finkatzen dituen jarraibideak aintzat harturik.
 - e. Animaliak modu eraginkorragoan babesteko egoki irizten dieten neurriak proposatzea Gasteizko Udalari.
 - f. Animaliak babestearen inguruko jarduera eta kanpainak egitea.
3. Animaliak babesteko elkarteekin egiten diren hitzarmenen zer-nolakoak gorabehera, Gasteizko Udala izango da Animaliak Babesteko Zentroan dauden animalia guztien arduraduna, harik eta besteri lagatzen dizkion arte.
4. Elkarte horiek interesatutzat hartuko dira animaliak babestearen inguruko prozedura zigortzaileetan, Euskal Administrazio Publikoen Zigortzeko Ahalmenari buruzko otsailaren 20ko 2/1998 Legean xedatutakoaren ildotik.

4. artikulua.- Animaliei buruzko udal informazioa eskuratzea.

Udal jarduerari eta horien aurrekariari buruzko informazioa eta, oro har, animalien babesaren inguruan udalak ematen dituen zerbitzu eta jarduerari buruzkoa eskatu ahal izango dute herritarrek eta elkarteek idatziz, indarrean dauden lege-xedapenen eta Gasteizko Udaleko Herritarren Parte-Hartzearen Araudi Organikoaren ildotik, Konstituzioaren 105. artikuluan aurreikusiten diren mugekin. Informazio eskari horiei gehienez ere 30 eguneko epean erantzun beharko zaie.

5.- artikulua.- Animalien babesaren alorrean parte hartzea.

- 1) Herritarren parte-hartzeari buruzko udal arauetan aurreikusitakoa izango da animaliak babesteko erakundearen parte-hartzea udalaren eskumeneko auzietan.
- 2) Elkarbizitzarako eta Animalien Babeserako Udal Kontseilua sortuko du Gasteizko Udalak, gehienez ere sei hilabeteko epean.

- 3) Animalien babeserako bolondresaren figura sortuko du Gasteizko Udalak, eta arauz ezarriko horren antolakuntza eta helburuak.

6. artikulua.- Animaliak Babesteko Zentroak

1. Animaliak babesteko zentroak izango ditu udalak, bazter utzitako, galdutako nahiz konfiskatutako animaliak hartzeko, harik eta jabeak berreskuratu, beste inori laga edo, salbuespen gisa, eutanasi prozeduren bitartez hil arte.
2. Administrazioarekin lankidetzan diharduten animaliak babesteko elkarteekin hitzartu ahal izango du Gasteizko Udalak Animaliak Babesteko Zentroko zerbitzuak ematea.
3. Animaliak atzeman eta garraiatzeko bitartekoek, baita animaliak babesteko zentroetako instalazioek ere, higiene eta osasun egoera egokian egon beharko dute, animaliei ahalik eta traumarik gutxien eragitekoak izan beharko dute eta langile gaituek baliatu beharko dituzte.
4. Animaliak babesteko zentroek berriazko araudian eta gunee zoologikoei buruzkoan ezarritako betekizunak bete beharko dituzte.
5. Zentro horiek ezarritako gehienezko egonaldia gainditu duten animaliak utzi, adopzioan eman, edo beste aukera batzuk sustatzeko programak izan beharko dituzte, beren osasun egoera edo jarrera kontuan hartuta, albaitaritza zerbitzuek kontrakoa irizten dietenen kasuan izan ezik.
6. Animaliak babesteko zentroak titular berriei ematen dizkien animaliek baldintza hauek bete beharko dituzte:
 - a) Identifikatuta egon beharko dute.
 - b) Parasitorik gabe eta txertoak jarrita egon beharko dute, eta, aukeran, antzututa.
 - c) Beren ezaugarriak, osasun eta higiene beharrak, behar etologikoak eta ongizateari buruzkoak jasotzen dituzten agiriekin batera eman beharko dira.
7. Aldi batean zaintzeko ematen edo beste nolabait lagatzen diren animaliek baldintza hauek bete beharko dituzte:
 - a) Animaliak babesteko zentroko liburuetan erregistratuta egon beharko dute.
 - b) Parasitorik gabe eta txertoak jarrita egon beharko dute, eta, aukeran, antzututa.

Gasteizko Udalak animalia jabe berriaren datuak jakinarazi beharko dizkio dagokion erregistroari.

III. TITULUA.- ANIMALIAK BABESTEAREN ERREGIMEN JURIDIKOA

7. artikulua.- Animaliak babesteko betebeharra

Hiri iraunkorra izateko konpromisoa aintzat hartuta, eta bere eskumenen eremuan, Gasteizko Udalak animaliak babesteko betebeharra dauka, indarrean dagoen legearekin bat etorritz.

Gasteizko Udalak animaliekiko sentiberatasuna eta errespetua sustatuko ditu.

8. artikulua.- Debekuak

- 1.- Berriaz debekatua egongo da:

- a) Animaliei tratu txarra ematea, edo sufrimendua, mina edo larritasuna eragin liezaiekeen edozein jardueraren pean jartzea.
- b) Animaliak bazterrera uztea.
- c) Bizirik irauteko beharrezko elikadura ez ematea edota higiene eta osasun ikuspuntutik desegokiak diren establezimenduetan edukitzea, animalia-aren ongizateari eta segurtasunari dagokionez.
- d) Animaliei mutilazioak egitea, salbu eta ezinbestean, arrazoi funtzionalak di-rela medio albaiariaren kontrolpean egiten direnak.
- e) Txakurrak etengabe lotuta edukitzea.
- f) Animaliei alkohola, drogak edo botikak ematea, edo kalte fisikoa edo psiki-koa eragin liezaiekeen edozein manipulazio artifizial egitea, nahiz eta lehiaketa batean errendimendua handitzeko izan.
- g) Beren izaerari ez dagozkion portaera edo jarrera desegokiak harraraztea, edo tratu laidoztagarria ematea.
 - h) Animalien arteko borrokak eratzea.
- i) Animaliak bide publikoan hiltzea, nahitaezkoa edo ezinbestekoa denean izan ezik.
- j) Animaliak saldu, eman edo lagatzea adingabeei (legez finkatuari jarraiki) eta ezgai diren pertsonei haien guraso-agintea edo tutoretza dutenen baime-nik gabe.
- k) Animaliak kalez kale saltzea, baimendutako feria edo azoketan izan ezik.
- l) Laborategi edo klinikei animaliak saltzea, administrazioaren kontrolrik gabe.
- m) Animaliak publizitate-erakargarri, sari edo donari gisa ematea, haien kostu bidezko salerosketaren ondorio diren negozio juridikoak salbu.
- n) Babestutako espezie-tako animaliak saltzea, baita halakorik edukitzea eta jendaurrean erakustea ere, berariazko legerian jasotakoaren ildotik.
- o) Horretarako berariazko baimena izan ezean, bide publiko eta orubeetan animaliei kontrolrik gabe jaten ematea.
- p) Era berean, debekatuta egongo da edozein espezie-tako animalien hiltzak bide publikoan edo zabor edukiontzietan uztea, eta halakorik suertatuz gero udal zerbitzuei jakinarazi beharko zaie, egokitzat jotzen duten moduan joka dezaten.
- q) Administrazio autonomikoan eskumenak dituen organoari jakinarazi ezean -itxuraz animalia-ri eragindako mina benetan fikzio huts dela egiaztatu ahal dezan-, animaliekiko krudeltasuna, tratu txarra edo sufrimendua erakusten duten fikzioko eszenak filmatu, argazkiak atera edo edozein motatako komu-nikazio-euskarritan grabatzea.
 - r) Ibilgailuak animalien ohiko bizilekutzat baliatzea. Halaber, barruan anima-liaren bat duten ibilgailuek ezingo dute egon lau ordutik gora kalean aparka-tuta, eta udako hilabeteetan nahiz bero egiten duen egunetan denbora guz-tian itzalean dagoen lekuren batean utzi beharko dira, eta behar bezala airez-tatuta egon beharko dute une oro.
- s) Animaliak baliatzea ikuskizunetan, zirkuetan, filmazioetan, publizitate jar-dueretan, kultur nahiz erlijio ospakizunetan eta beste edozein jardueratan, baldin eta horrekin mina eragingo bazaie, edo sufrimendua, degradazioa, pa-rodia, iseka edo naturaz kontrako trataera badakarte berekin, edo ikusten du-tenak mindu baditzaizkete.
- t) Animalia etxekotuak nahiz gatibu dauden basa animaliak erabiltzea zirku eta ikuskizunetan.

IV. TITULUA.- ANIMALIAK EDUKITZEAREN ERREGIMEN JURIDIKOA

I. KAPITULUA.- ARAU OROKORRAK

9. artikulua.- Animalien jabeen betebeharrak

1.- Edozein animalia jabeak higie eta osasun baldintza onetan eduki beharko du hura, aterperako instalazio egokiak, janaria eta edaria, albaitaritza-laguntza eta ariketa fisikorako aukera eman, eta bere beharrian fisiologiko eta etologikoen arabera arreta eskaini, animalia espezia eta arraza kontuan izanik. Horrez gain, segurtasun baldintza egokietan eduki beharra daukate, auzokoentzat edo animalientzat berarentzat inongo arrisku edo enbarazu egoerarik gerta ez dadin.

Kode Zibilaren 1.905. artikuluan xedatutakoaren ildotik, animalia jabea izango da hark sortzen dituen kalte, galera eta eragozpenen erantzule.

2.- Bereziki, animalien mantenturako gutxieneko baldintza hauek finkatzen dira:

- a) Edateko ura eta nahikoa jaki -orekatua- ematea, nutrizio eta osasun maila egokia izan dezaten.
- b) Sufri ez dezaten, ongi egon daitezten eta bizi-beharrak ase ditzaten beharrezko den lekua edukitzea, aireztapen, hezetasun, tenperatura, argitasun eta estalpe egokiek.
- c) Bizilekuak garbi, desinfektatuta eta desintsektatuta edukitzea, eta aldian-aldian gorozkiak kentzea.
- d) Ezin izango da animaliarik usu balkoi, terraza, garaje, pabilioi, soto, teilatu-lau, lorategi edo hiriko beste edozein lokal edo lur sailetan eduki edo ukuiluratzetik, baldin eta horrek auzokoei edo iragaileei enbarazu egiten badie, animalientzat higie eta osasun eta ongizatearen aldetik leku desegokia bada, edo behar bezala zaintzea galarazten badu.
- e) Beren ezaugarri etologikoak aintzat hartuta, gutxieneko espazioa izan beharko dute animaliek, Gune zoologikoei buruzko 81/2006 Dekretuan xedatutakoarekin bat etorritik.
- f) Animaliak ibilgailu pribatuetan garraiatzekotan, nahikoa leku izan beharko da horietan, estalpean, muturreko eguraldi-egoeretatik babestua. Hala-ber, animaliak gidariari enbarazurik ez egiteko eta trafikoaren segurtasuna arriskuan ez jartzeko moduan egin beharko da, eta hark ikuspuntu etologiko edo fisiologikotik animaliei egoera desegokirik jasanarazi beharrik ez izateko moduan.
- g) Txakurrek ezingo dute lotuta egon 8 ordu gora, jarraian. Hortaz, denbora hori iritsiz gero, ordu erdiko ariketaldia eskaini beharko diete jabeek. Era berean, ezingo dira bakarrik geratu lokal edo etxeetan hiru egunetik gora, jarraian.
- h) Erroldatuta edo erregistratuta eduki beharreko animalia bat galduz gero, salatu egin beharko du jabeak edo hark baimendutako norbaitek.
- i) Txakurrek leku jakin batean lotuta egon behar badute, lotzeko uhalak hiru metrokoak izango dira gutxienez. Animaliak eskura eta eroso iristeko moduan izan behar ditu babeslekua eta edateko ura duen ontziren bat.

Animaliak edukitzeari dagokionez, debekatuta dago:

- a. Animaliei bide publikoan edateko dauden ur iturrietatik zuzenean edaten uztea.
- b. Animaliak haur jolasetarako esparruetan -zabuak, txirris-tak eta abar- ibiltzea eta egotea.

10. artikulua.- Animaliak bide eta espazio publikoetan

1.- Etxe-abereen jabeek horiek ez ditzatela espazio publikoak eta eraikinen fatxadak kalteu edo zikindu zaindu beharko dute noiznahi. Jarrera hauek beteko dituztela zaindu beharko dute bereziki:

- a. Animalia jabeak edo hura berekin daukanak behar diren neurriak hartu beharko ditu haren gorozkiak hiriko bide, parke eta espazio publikoetan, lorategietan eta, oro har, apaingarri edo pertsonen igarobide den edozein tokitan botata gera ez daitezen. Nolanahi ere, animaliak gorotza bide publikoan uzten badu, animalia berekin daraman pertsona izango da hura kentzearen arduraduna; hain zuzen ere, poltsa iragazkaitz batean sartu eta itxi ondoren, paperontziren batera edo udal zerbitzuek jartzen dituzten bestelako ontzietara bota beharko du.
- b. Usoak kontrolik gabe ugaltzea ez daitezen behar diren neurriak hartu eta, bereziki, habiak egin ditzatela eragotzi beharko dute eraikinen jabeek. Neurri horiek ez diete animaliei minik eragin beharko, ezta horiek akabatu ere.

2.- Bizilekua kalea duten espezieetako animalien kontrolik gabeko ugalketak hala eskatzen badu, behar diren neurriak hartuko dituzte udal agintariek haien populazioa kontrolatzeko, eta, hortaz, gerora akabatu beharrik ez izateko.

3.- Katuen eta hiriko bestelako animalien kolonien kudeaketa sustatu ahal izango du udalak, animaliek auzokoei eragiten dizkieten kalteak albatz gehien murrizte aldera eta, bide-nabar, osasun arriskuak gutxitu, gehiegizko ugalketa eragotzi eta animalien bizitza kalitate hobetzeko. Animaliak babesteko erakundeek kudeatu ahal izango dituzte animalia koloniak, egoki diren lankidetzak hitzarmen edo tresnak bitarteko direla, eta Gasteizko Udaleko zerbitzu teknikoaren ikuskaritzapean.

11. artikulua.- Txakurrak parke eta lorategi publikoetan askatzea

1.- Hiriko bide, parke eta leku publikoetan, udalak baimendutako lekuetan izan ezik, animaliak kontrolpean eraman beharko dira, zer ezaugarri dituzten, horren arabera egoki den -eta gehienez bi metroko luzera izan beharko duen- katearekin, uhalarekin edo beste sistemaren batekin lotuta.

2.- Alkatearen dekretuen bitartez zehaztuko dira arriskutsutzat jotzen ez diren txakurrak aske ibili ahal izango diren eremu mugatuak, baita horretarako ordutegiak ere, behar izanez gero.

Behar bezala seinaleztatuta egon beharko dute eremu horiek.

3.- Nolanahi ere, txakurren jabe edo edukitzaileek haien gaineko kontrola eduki beharko dute une oro, pertsonen eta gainerako animalien enbarazu eta kalterik eragin ez diezaieten, ezta ondasun edo instalazio publikoak hondatu ere. Hori dela eta, begien bistan eduki beharko dute txakurra, behar izanez gero esku hartu ahal izateko moduko distantzian.

12. artikulua.- Animaliak hiltzea

Animalia baten jabeak edo hura berekin duenak, hark gaitz kutsakorren bat izan lezakeela uste badu, albaitariari jakinarazi beharko dio. Diagnostikoaren emaitza positiboa bada, eta, beraz, pertsonak nahiz animaliak kutsatzeko arriskua badago, eskumena duen agintariari jakinarazi beharko dio hark, hala egitea nahitaezkoa bada. Tratamendua emateko aukerarik ez badago, eta albaitariak hala erabakitzen duelarik, hil egin beharko da animalia, baimendutako eutanasia-prozedura baliatuz, eta albaitariaren kontrol eta ardurapean. Gainera, albaitariak egiaztatu egin beharko du animalia heriotza.

Era berean, gaixotasun kroniko sendaezinak edo mutilazio mingarriak dituzten animaliak, baita oinaze handi eta baretu ezinak dituztenak ere, hil egin beharko dira.

Animaliarik hil behar izatera, minik ematen ez duen prozeduraren baten bitartez hilko da betiere, eta indarrean dagoen araudiarekin bat etorritik.

13. artikulua.- Animaliak identifikatzea

1.- Txakurrak identifikatzeko eta Gasteizko Udalean erroldatzeko obligazioa dute horien jabeek. Hain zuzen ere, hilabeteko epean egin beharko dute, txakurra jaiotzen denetik edo eskuratzen dutenetik kontatuta, baldin eta udalerrian biziko bada edo hiru hilabetetik gora egingo badu bertan. Konpainiako beste animalia batzuetara ere zabaldu ahal izango da betebeharrak hori.

2.- Identifikaziorako, mikrotxipa edo osagai mikroelektroniko bat jarri beharko dio animalari albaitari ofizialen batek -dela foru edo udal albaitari batek, dela animalia txikiekien lan egiteko gaitutako albaitari pribatu batek-, lepoaren ezkerreko aldean jarri ere.

Euskal Autonomia Erkidegoan animaliak identifikatzeko metodo elektronikoaren erabilera arautu zuen Nekazaritza eta Arrantza sailburuaren 1993ko maiatzaren 5eko Aginduan xedatutakoari jarraiki egingo da jartze hori, edo gerora finkatzen den beste edozein arautan xedatzen den moduan.

Animalia identifikatzean, albaitari ofizial edo gaitu jarduleak Kartila Ofiziala beteko du, baita animalia identifikatu eta 1993ko maiatzaren 5eko Aginduan bitartez sortutako Euskal Autonomia Erkidegoko Animaliak Identifikatzeko Erregistro Orokorrean (AIEO) erregistratzeko eskabidea egiteko agiria ere. Albaitari ofizial edo gaituen bulegoetan izango dute eskuragarri interesdunek agiri hori. Ale bat albaitariaren esku geratuko da, eta beste bi aleak animalia jabearen emango dizkio, eta hark Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Arrantza Sailera bidali beharko du horietako bat, nortasun-agiriaren fotokopiarekin batera, datuak AIEOan sar daitezela.

AIEOko datuak, behin sartzen direnean, Udalek eta Foru Aldundiek hartuko dituzte, eta animalia dagokion udalerrian erroldatuta geldituko da. Hara ere, datu horien erabilerak eta tratamenduak bat etorri beharko du animaliak babesleari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoarekin.

3.- Ez erroldatzea, edo horretarako jarritako epetik kanpo egitea, arau-haustea izango da, Animaliak Babesteari buruzko Legearen 27.1.a artikuluan xedatutakoaren ildotik.

4.- Animalia jabeak AIEOri jakinarazi beharko dio erregistro horretan jasotako edozein datu aldatuz gero, eta, zehazki, honako kasu hauetan:

- a) Jabeari edo animalia buruzko datuak aldatzen badira.
- b) Jabea aldatzen bada.
- c) Animalia baja ematen bazaio, hil egin delako edo EAetik kanpora eraman delako, betiko -albaitaritza klinika batean hiltzen delarik, egiaztagiria aurkeztu beharko da-.
- d) Galdu egin bada edo lapurtu egin badute.

10 eguneko epean gauzatu beharko da jakinarazpena, salbu eta animalia galdu egin bada edo lapurtu egin badute. Halakoetan, 5 eguneko epean egin beharko da, galdu zenetik edo lapurreta salatu zenetik, salaketaren kopia erantsiz.

Interesdunek Gasteizko Udalean nahiz Arabako Foru Aldundian, baita gaitutako albaitariaren bulegoetan ere, eskuragarri izango duten agiria baliatuz egin beharko da aldaketa edo gertakaria jasotzeko eskabidea, norberaren nortasun-agiriaren kopia erantsen zaiolarik. a), c) eta d) puntuetan aurreikusitako kasuetan, dagokion alea bidali beharko du interesdunak AIEOra.

b) atalean aurreikusitako kasuetan, hau da, salmenta, dohaintza edo indarrean dagoen legedian aurreikusitako beste moduren bat baliatuz, eskualdatze bat egiten denean, parte hartzen duten aldeek aldaketa eskatzeko agiria bete beharko dute -zenbaki bat izango du,

eta lau ale bete beharko dira-. Udaleko osasun zerbitzuak edo aldundiak jasoko du Kartila Ofizialean eskualdatzearen berri, eta ontzat emango, eta erabilitako agiriaren zenbakia adieraziko du bertan. Ale bat dena delako instantziaren esku geratuko da, beste bat animalia eskualdatu duenaren esku, eta bi ale titular berriaren esku, zeinek AIEOran bidali beharko baitu horietako bat hilabeteko epean, eskualdatze egunetik kontatuta.

Edozein animalia saldu edo lagatzekotan, nahitaezkoa izango da horiek behar bezala identifikatuta eta erroldatuta eta Kartila Ofiziala eguneratuta ematea titular berriari.

Erregistroari artikulua honetan adierazitako errolda-identifikazioari buruzko aldaketan berri ez ematea arau-haustetzat joko da, Animaliak Babesteko Legearen 27.1 a) artikulua eraildotik.

14. artikulua.- Edukitzearen mugak

1.- Oro har, baimenduta egongo da etxe-abereak edo etxekotutako animaliak etxe partikularretan edukitzea, baldin eta higie eta osasungarritasun, ongizate eta segurtasun baldintzak betetzen badira, bai animalia errentzat, bai pertsonentzat.

2.- Eskumena duen udal agintariak mugak jarri ahal izango dizkio animaliak edukitzeari nahiz eduki ahal diren animalien kopuruari, bizitokiaren ezaugarriak, instalazioen egokitasuna eta higie eta osasun egoera aintzat harturik, baita auzokoentzat nahiz beste edonorentzat, edo animalia errentzat berarentzat edo beste animalia batzuentzat, arrisku edo enbarazu egoerarik sor daitezkeen ere. Higiezinaren azaleraren arabera eduki daitezkeen animalien gehieneko kopuruari dagokionez, aplikagarri diren araudietan xedatutakoaren arabera jokatu da.

3.- Halaber, animaliak zein egoeratan dauzkan jakiteko behar duen informazioa eta dokumentazioa eskatu ahal izango dio udal agintari eskudunak interesdunari, baita haiek eskura jartzeko ere, bertatik bertara behatzeko.

4.- Etxe partikularretan etxe-abererik haztekotan, higie eta osasungarritasun, ongizate eta segurtasun baldintzak bete beharko dira, bai animalia errentzat, bai pertsonentzat.

5.- Animaliak komunitate leku pribatuetara, hala nola kultur edo olgeta elkarteetara, etxejabe elkarten leku komunitaria eta bestetara sartzeari eta bertan egoteari dagokionez, erakunde horien baitako arauen arabera jokatu da.

6.- Konpainiako animaliak ezingo dira igogailuetan igo edo jaitsi haiekin joan nahi ez dutela adierazten dutenekin batera.

15. artikulua.- Osasun publikoaren babesa

Debekatuta dago jakiak lantzeko, saltzeko, gordetzeko, garraiatzeko nahiz maneatzeko erabiltzen diren lokal edo ibilgailuetan animaliak sartzeari eta halakoak bertan edukitzea. Ostalaritza establezimendu publikoen jabeek -hala nola hotel, pentsio, jatetxe, taberna, kafetegia eta antzekoak- animaliak bertara sartzeari eta bertan egotea galarazi ahal izango dute. Ageriko lekuan jarri beharko dituzte debeku seinaleak. Nolanahi ere, sartzeari eta bertan egotea uztekotan, animaliek uhaletz lotuta egotea eskatu beharko dute. Orobat, muturrekoa eraman beharko dute baldin eta, beren ezaugarriak eta izaera direla eta komenigarri bada, eta nahitaezkoa izango da hori erabiltzea baldin eta arriskutsu izan daitezkeen txakurrak badira.

Aurreko debekuetatik salbuetsita geratzen dira laguntza eta segurtasun txakurrak, salbu eta jakiak egin eta eskuztatzen diren lekuetara sartzeari dagokionean, izaera orokorreko debekua izaki hori.

Debekatuta dago ikuskizun publikoak dauden lokal, esparru eta espazioetan animaliak sartzeari eta edukitzea, baita igerileku publikoetan, osasun-lokaletan eta antzekoetan eta jendea bildu ohi den hezkuntza, kultur edo aisialdi establezimenduetan ere, salbu eta berriaz baimentzen delarik.

Jendearentzat zabalik dauden bestelako establezimenduen jabeek horietara animaliak sartzea eta halakoak bertan egotea debekatu ahal izango dute, debekua argi ikusteko moduan adieraziz sarreran.

16. artikulua.- Bazterrera utzitako animaliak

Ez jaberik, ez bizileku ezagunik ez duena joko da bazterrera utzitako animaliatzat, edo jatorriaren nahiz jabearen inongo identifikaziorik ez daramana eta inork lagundu gabe doana, baita identifikazioa eraman arren jabeak edo hark baimendutako pertsonak galdu denik salatu ez duena ere.

17. artikulua.- Bazterrera utzitako animaliekin nola jokatu den

1) Zerbitzu propioaren nahiz hitzartuaren bitartez, Gasteizko Udalak jaso egingo ditu bazterrera utzitako animaliak. Horiek harrapatu eta garraiatzeko baliabideek higiene eta osasun egoera egokian egon beharko dute, eta ez diete animaliarri bidegabeko sufrimendurik eragin beharko.

2) Aurreko puntuan adierazitako animaliak Armentia Animiak Babesteko Zentroan edukiko dira, legez finkatutako epean. Horietakoren bat berreskuratu nahi duenak jabea dela egiaztatu beharko du, eta finkatuta dauden tasak eta hura jaso, mantendu, bertan eduki eta identifikatuzetik sortutako bestelako gastuak ordaindu.

Animaliaren osasun egoera, arriskugarritasuna edo sufrimendua dela kausa hala egitea komeni bada, delako epea behar adina murriztuko da, zerbitzu horretako albaitariaren iritzia aintzat harturik.

3) Identifikaziorik gabeko txakurra jasotzen denetik 30 egun naturaleko epea igarotzen delarik inork erreklamatu gabe, neurri hauetakoren bat hartu ahal izango da: hartaz jabetu, eskatzen duen eta animaliaren administrazio eta osasun egoera erregularizatzen duenari eman edo, azken aukera gisa, eutanasia bidez hil.

Identifikatutako animalien aldi baterako lagapenik ere egin ahal izango da, egoerak hala eskatzen duenean, I. eranskinean finkatutako baldintzekin.

4) Animaliak identifikazioa badarama, modu frogagarrian jakinaraziko zaio jabeari hura jaso edo atzeman dela, eta zazpi laneguneko epea izango du hark hura berreskuratzeko - animaliak harrera zentroan sartu zen egunetik bertan egindako egonaldiaren ondorio diren tasa eta gastuak ordaindu beharko ditu horretarako-. Epe hori igarotzen delarik jabeak animalia berreskuratu ez badu, aurreko atalean adierazi bezala jokatu da harekin; bazterrera utzitako animaliatzat joko da, eta dossier zigortzailea abiaraziko da jabearen kontra.

18. artikulua.- Eraso baten aurrean nola jokatu den

1.- Pertsona batek animalia bati eraso egiten diolarik.

Animalia batek jasandako eraso salatzeko edo jakinarazten zaion udal zerbitzuak erasotzailea edo tratu txarren emalea identifikatzen lagunduko duten datuak jaso beharko ditu salaketa egin edo gertakarien berri eman dionarengandik, eta udaltzaingoari jakinarazi.

Administrazio-agintaritzak, zuhurtasunezko neurri hau hartuko du, modu arrazoituari:

- a) prebentzio neurri gisa, animaliak tratu txarrak jasan dituen zantzurik izanez gero, hura jabeari kendu eta animaliak babesteko zentro batean sartu eta bertan zaintzea.

2.- Animalia batek pertsona bati eraso egiten diolarik.

- 1) Animalia batek pertsona bati eraso egin diola salatzeko edo jakinarazten zaion udal zerbitzuak eraso egin duen animaliaren jabea identifikatzen lagunduko duten datuak jaso beharko ditu salaketa egin edo gertakarien berri eman dionarengandik, eta berehalakoan eman beharko die horien berri udal albaitaritzari zerbitzuei.

- 2) Eraso egin duen animaliak kosk zauriak eragin badizkio eraso izan denari, dosierra zabaldu dutela jakinaraziko diete udal albaitaritzak zerbitzuek Osasun Saileko Epidemiologi Zaintzako Unitateari eta Foru Aldundiko Abere Osasuneko Zerbitzuari.

Zauriak eragin dituen animalien jabeak 24 orduko epea izango du hura nahi duen albaitari ofizial edo gaituarengana eramateko, behaketa egin diezaion, hamalau egunez txakurra bada edo, bestelako animalien bat bada, unean uneko egoera epizootiologikoak eskatzen duen adina denboraz, txosten tekniko arrazoitua egin ondoren. Animaliak kosk egin zuenetik 24 ordu igarotzen direlarik bere borondatez egin ez badu, eskumena duen udal agintariak egin dezala galdegingo dio, eta animaliak jasotzen dituen zentro batean sartu eta bakartzeko agindu ahal izango du. Eskakizun hori ez betetzea arau-hauste larritzat joko da Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 36.2.b.1. artikuluan xedatutakoaren ildotik, agindua betetzen dela bermatzeko hartzen diren zuhurtasunezko neurriak gorabehera. Nolanahi ere, egindako txosten edo egiaztagiriak kosturik sortzen badu, animalien jabeak ordaindu beharko ditu. Animaliak jabe jakinik ez badu, gertakarien berri jaso duen udal zerbitzua arduratuko da animalia jaso eta behaketa-aldian jartzeaz.

Behaketa egiten duelarik, zoonosi-arriskurik dagoen aztertu beharko du albaitariak, eta, bidenabar, animalien izaerak zer nolako arriskuak sor ditzakeen ebaluatu. Orobat egin beharko du behaketaren emaitzen txostena edo egiaztagiria. Behaketa-aldia bukatu ondoren, dosierra izapidetzeko eskumena duen agintariari -lehen paragrafoan adierazi denaribidali beharko dio animalien jabeak albaitariaren txostena edo egiaztagiria, 48 orduko epean, haren baitan jaso dezan. Delako agintariak, berriz, albaitariaren txosten edo egiaztagiriaren kopia bana bidaliko du Foru Aldundiko Abere Osasuneko Unitatera eta Osasun Saileko Epidemiologi Zaintzako Unitatera. Behaketa egiten delarik osasun arriskuren bat dagoela ondorioztatzen bada, behaketa-aldia luzatzeko edo txakurra zentro batean sartu nahiz bakartzeko agindua eman ahal izango du udal agintariak.

- 3) Erasoak ez badu kosk-zauririk eragin, nahi duen albaitari ofizial edo gaituarengana eraman beharko du txakurra jabeak, behaketa egin diezaion, beharrezkotzat jotzen duen denboraz, animalien izaerak zer nolako arriskuak sor ditzakeen ebaluatzeko, eta guztiaren buruan dagokion egiaztagiria egin dezan. Udal albaitaritzak zerbitzuetara igorri beharko du jabeak egiaztagiri hori, dosierra izapidetu dezaizen.

19. artikulua.- Laguntza-txakurrak

1) Aurreko artikuluetan xedatutakoa gorabehera, laguntza-txakurrekin doazen pertsonen leku, espazio eta garraio publikoetan sartzetik izango dute, Ahalmen Urrituentzako Laguntza Txakurrei buruzko ekainaren 29ko 10/2007 Legean zehaztutako baldintzekin.

2) Eskumena duen agintariak edo erabiltzen ari diren zerbitzuaren arduradunak hala eskatuz gero, dena delako animalia laguntza-txakurra dela eta dagozkion osasun-betebeharrak betetzen dituela egiaztatzen duten agiriak erakutsi beharko dituzte laguntza-txakurrekin doazenek.

3) Txakur gidariak gaixotasun edo oldarkortasun zantzurik badu, nabarmenki zikin bada-go edo pertsonentzat edo beste animalia batzuentzat arriskugarri izan litekeela pentsaraz dezakeen beste edozein zantzu ageri badu, bertan behera geratuko da adierazitako lekuetara sartzeko eskubidea.

20. artikulua.- Garraio publikoa

Edozein garraiobide publikotan eraman ahal izango dira etxeko animaliak, baldin eta zerbitzu horien araudiek hala baimentzen badute, eta bertan finkatutako baldintzak betetzen direlarik.

Laguntza-txakurrak arazorik gabe eraman ahal izango dira hiriko garraio publikoan, baldin eta txakurraren jabearekin batera badoaz eta ordenantzetan aurreikusitako osasun eta higiene neurriak betetzen badituzte.

Garraiobidea taxia bada, haren jabearen esanetara egon beharko da.

21. artikulua.- Konpainiako animaliak Europako Erkidegoaren barruan lekuz aldatzea

Txakur, katu eta hudoen jabeek, edo horiek baimendutako pertsonak, animalia horiek Europako Erkidegoaren barruan lekuz aldatuko badira, Nekazaritza eta Arrantza sailbueraren 2004ko irailaren 27ko aginduan edo hori ordezkatzeko duen araudian arautzen den pasaportearen eraman beharko dute aldean, albiltari ofizial edo gaitu batek emana.

22. artikulua.- Txakurren erregimen orokorra

Ordenantza honetan xedatzen denaz gain, Euskal Autonomia Erkidegoan txakurrak edukitzeari buruzko ekainaren 1.eko 101/2004 Dekretuan, Arriskutsu izan daitezkeen Animaliak Edukitzearen inguruko Erregimen Juridikoari buruzko abenduaren 23ko 50/1999 Legea garatzen duen martxoaren 22ko 287/2002 Errege Dekretuan eta aplikagarri diren gainerako arauetan xedatutakoa ere bete beharko da.

II. KAPITULUA.- ARRISKUTSU IZAN DAITEZKEEN ANIMALIEI BURUZKO BERARIAZKO XEDAPENAK

23. artikulua.- Erregimen orokorra

Arriskutsu izan daitezkeen Animaliak Edukitzearen inguruko Erregimen Juridikoari buruzko abenduaren 23ko 50/1999 Legean, hori garatzen duen martxoaren 22ko 287/2002 Errege Dekretuan, Euskal Autonomia Erkidegoan txakurrak edukitzeari buruzko ekainaren 1.eko 101/2004 Dekretuan eta aplikagarri diren gainerako arauetan xedatutakoa aplikatuko zaie ordenantza honen 3. artikuluan definitu diren animaliei, hau da, arriskutsu izan daitezkeen animaliei.

24. artikulua.- Lizentzia

1.- Arriskutsu izan daitezkeen Animaliak Edukitzearen inguruko Erregimen Juridikoari buruzko abenduaren 23ko 50/1999 Legearen arabera arriskutsu izan daitezkeen animaliatzat jo beharra dagoen edozein animalia edukitezkotan, administrazio-lizentzia eskuratu beharko da aldez aurretik. Hain zuzen ere, eskatzailea bizi den udalerriko udalak emango du lizentzia hori, edo, bestela, hura jakinaren gainean jarri ondoren, salerosketa edo txakurraren trebakuntza egin deneko udalak, gutxienez betebeharrak hauek betetzen direla egiaztatzen delarik:

- a. Adinez nagusia izatea.
- b. Hilketa, lesio edo tortura delituengatik kondenatua ez izatea, edo askatasunaren nahiz osotasun moralaren, sexu-askatasunaren edo osasun-publikoaren kontra-koengatik, edo talde armatu edo narkotrafikatzaile batekin elkartzeagatik, eta ebazpen judiziala dela medio arriskutsu izan daitezkeen txakurrak edukitzeko eskubidea kendu ez izana.
- c. Arau-hauste larri edo oso larriren baten ondorioz Arriskutsu izan daitezkeen Animaliak Edukitzearen inguruko Erregimen Juridikoari buruzko abenduaren 23ko 50/1999 Legearen 13. artikuluan 3. atalean adierazitako zigor osagarrietakoren bat jarri ez izana. Nolanahi ere, lizentzia aldi baterako kendu izanak ez du galazariko hura berriro eskuratzea edo berritzea, baldin eta horretarako eskubidea egiten denerako osorik bete bada lehendik jarritako zigor hori.

- d. Arriskutsu izan daitezkeen animaliak eduki ahal izateko ahalmen fisikoa eta gaitasun psikologikoa edukitzea.
- e. Hirugarrenei egin lekizkiekeen kalteei aurre egiteko erantzukizun zibileko aseguru -gutxienez ehun eta hoge mila euroko estaldura (120.000 euro)- formalizatu dela egiaztatzea. Hain zuzen ere, hamar eguneko epean kontratatu beharko da aseguru hori, animalia identifikatzen denetik kontatuta, 101/2004 Dekretuaren 12. eta 13.3. artikuluen ildotik.
- f. Aseguru hori beste asegururen baten baitakoa izan ahalko da, baina, nolahi ere, delako 101/2004 Dekretuaren III. eranskinean ageri den ereduari jarraiki aseguru-konpainiak emandako ziurtagiriaren bitartez egiaztatu beharko da kontratatu dela. Ziurtagiri horretan berariaz adierazi beharko da, batetik, asegurua bere gain hartzen duen txakurraren identifikazioa eta, bestetik, asegurua noiztik noiz arte egongo den indarrean.
- g. Txakurraren titularraren erantzukizuna izango da hura bizitza osoan erantzukizun zibileko aseguru baten bitartez aseguraturuta edukitzea, eta, beraz, behar den guztietan berri egin beharko du delako aseguru hori.

1. atal honetako b) eta c) paragrafoetan adierazitako betebeharrak betetzen direla egiaztatzeko halakoei dagozkien erregistroek emandako ezezko egiaztagiria aurkeztu beharko dira. Ahalmen fisikoa eta gaitasun psikologikoa egiaztatzeko, berriz, gorago aipatutako martxoaren 22ko 287/2002 Errege Dekretuan xedatutakoaren ildotik eskuratutako ziurtagiriak aurkeztu beharko dira.

2.- Interesdunak eskabidea egiten duelarik, eskumena duen udal organoak eman edo berrituko du administrazio-lizentzia, 50/1999 Legean xedatutakoaren ildotik, aurreko atalean finkatutako betebeharrak betetzen direla egiaztatu ondoren.

3.- Bost urteko indarraldia izango du lizentziak; ondoren, beste horrenbesteko berritu ahal izango da, aldiko. Alabaina, lizentzia emateko baldintzak ez betetzea hura bertan behera uzteko nahikoa arrazoi izango da. Lizentzia ageri diren datuetako edozein aldatzen bada, udal albaitaritza zerbitzuei jakinarazi beharko die titularrak, hamabost eguneko epean jakinarazi ere, delako lizentzian behar den aldaketa egin dezaten.

4.- Indarrean dagoen lizentziaren gaineko kautelazko neurria hartu edo hura bertan behera uzten delarik auzi-bidean nahiz administrazio-bidean, uko egingo zaio besterik eman nahiz lehengo berritzeari, indargabetzeak bere horretan dirauen bitartean.

5.- Artikulu honen 1. paragrafoan finkatutako betebeharrak betetzen ez direlarik ematen diren lizentziak baliogabeak izango dira erabat, eta, beraz, titularrak lizentziarik ez duela ulertuko da halakoetan.

25. artikulua.- Arriskutsu izan daitezkeen animalien erregistroa

1.- Arriskutsu izan daitezkeen animalien jabeak hura Arriskutsu izan daitezkeen Animalien Udala Erregistroan inskribatu dezatela eskatzeko obligazioa du, eta animalia erosi ondorengo hamabost egunetan egin beharko du hori.

2.- Arriskutsu izan daitezkeen Animalien Udala Erregistroari jakinarazi beharko zaio animalia saldu, eskuz aldatu, dohaintza eman, lapurtu, hil edo galduz gero, eta hala jasoko da dagokion erregistro-orrian.

3.- Arriskutsu izan daitezkeen animalia bat, betiko nahiz hiru hilabetetik gorako aldi baterako, Euskal Autonomia Erkidegotik kanpoko udalerrira batera eramaten duelarik, dagokion udal erregistroetan behar diren inskripzioak egiteko obligazioa izango du haren jabeak.

4.- Animalien titularrak artikulu honetan araututakoa betetzen ez badu, dagokion administrazio zigorra jarriko zaio, 50/1999 Legearen 13. artikuluan xedatutakoaren ildotik.

26. artikulua.- Segurtasun neurriak

1.- Arriskutsu izan daitezkeen arrazetako txakurrak hazten dituztenek, baita arriskutsu izan daitezkeen animalien jabe eta edukitzaileek ere, indarrean dagoen legedian finkatuta dauden herritarren segurtasunaren alorreko arauak oro betetzeko obligazioa izango dute, animalia horien eta gizakien arteko bizikidetzatza al bait egokiena izan dadin, eta herritarrei enbarazurik ez egiteko.

2.- Arriskutsu izan daitezkeen animalien bat leku edo espazio publikoetan edukitzeakotan, berekin daraman eta kontrolatzen duen pertsonak ordenantza honen 23. artikuluan adierazi den administrazio lizentzia eraman beharko du aldean, baita dena delako animalia Animalien Udal Erregistroan inskribatuta dagoela egiaztatzen duen agiria ere.

3.- Arriskutsu izan daitezkeen animaliek, etxalde, landetxe, txalet, lur sail, terraza eta patioetan nahiz beste edozein leku mugatuta daudelarik, lotuta egon beharko dute, salbu eta horietara sartzen edo hurbiltzen diren pertsonak edo animaliak babesteko moduko bizilekua dutelarik, azalera, altuera eta itxitura egokiarekin.

4.- Arriskutsu izan daitezkeen animalien hazle, trebatzaile eta saltzaileek instalazio eta bitarteko egokiak izan beharko dituzte txakur horiek eduki ahal izateko.

5.- Arriskutsu izan daitezkeen animalia lapurtu edo galduz gero, Arriskutsu izan daitezkeen Animalien Udal Erregistroaren arduradunari jakinarazi beharko dio haren titularrak, gehenez berrogeita zortzi orduko epean, gertaeren berri izaten duenetik kontatuta.

27. artikulua.- Salbuespenak

Zirkunstantziak hala eskatzen dutelarik, zenbait betebeharrak betetzetik salbuetsi ahal izango dira animalien jabe eta edukitzaileak, honelako kasuetan:

- Animalia horiek funtzio sozial batekin erabiltzen dituzten erakunde publiko edo pribatuak direnean.
- Ganadua zaindu, babestu eta gobernatzeko txakurrak erabiltzen dituzten nekazaritza-ustiategiak, baita ehiza-jarduerak ere, nahiz eta ezingo duten inolaz ere 50/1999 Legean jasota dauden lege kontrako jardueretan jardun.
- Lan eta kirol probetan parte hartuko duten animaliak aukeratzeko saioak, esku-mena duen agintariak baimendu eta ikuskatzen dituelarik, borroka eta eraso ariketak izan ezik, eta indarrean dagoen araudian eta ordenantza honetan xedatutakoaren ildotik.

28. artikulua.- Garraioa

Animalien ongizateari buruzko berariazko araudiari jarraiki garraiatu beharko dira arriskutsu izan daitezkeen animaliak, garraioak dirauen bitartean, baita itxaronaldietan eta zamalanetan ere, pertsonen, ondasunen eta bestelako animalien segurtasuna bermatzeko hartu beharreko arreta-neurriak hartzen direlarik.

V. TITULUA.- ANIMALIEKIN ZERIKUSIA DUTEN JARDUERAK

29. artikulua.- Erregimen orokorra

1.- Euskal Autonomia Erkidegoko Gune Zoologikoei buruzko apirilaren 11ko 81/2006 Dekretuan edo hori ordezkatzeko duen araudian xedatutakoak arautuko ditu gune zoologikoak.

2.- Gune zoologiko ibiltarien eta animalia erakusketa eta lehiaketan kasuan, baita animaliek parte hartzen duten euskal herri kirolen erakustaldien kasuan ere, udal lizentzia edo baimena eskuratu beharko da, baita indarrean dagoen legediaren arabera foru aldundiak nahiz autonomia erkidegoak eman beharreko baimenak ere.

30. artikulua.- Animaliak saltzeko lokalak

Animaliak saltzeko dendek oro gune zoologikoen foru erregistroan inskribatuta egon beharko dute. Horrez gain, honako betebeharrak hauek bete beharko dituzte:

- a.- Animaliek beren bizitokietan erosotasun baldintza egokiak dituztela bermatu beharko dute beti ere instalazio eta ekipoei. Halaber, ariketa fisikoa egiteko aukera eman beharko zaie animaliei, egunero.
- b.- Aireztapen sistema eduki beharko dute, dela naturala, dela artifiziala, aretoa behar bezala aireztatzeko.
- c.- Intsonorizazio egokia, establezimenduan zer motatako animaliak edukiko diren aintzat hartuta, Zarata eta Dardarei buruzko udal ordenantzan xedatutakoaren ildotik.
- d.- Pareta eta zoruek erraz garbitu eta desinfektatzeko moduko estaldurak izan beharko dituzte.
- e.- Pareta eta zoruen arteko junturek soslai konkaboa izan beharko dute.
- f.- Instalazioak eta materialak garbitzeko, desinfektatzeko eta intsektuak eta arratoiak hiltzeko programa bat eduki beharko da, aditu batek gainbegiratu.
- g.- Animaliak dendaren sarreratik gutxienez metro bateko tartera egon beharko dute, enbarazurik ezin jasateko inguruetan, eta ez bide publikotik ez merkataritza establezimendu kolektiboen barne-galerietatik ere ezin ikusteko modukoetan.

Arabako Foru Aldundiari dagokio, animalien osasunaren eta ongizatearen alorrean dituen eskumenen baitan, establezimendu horiek ikuskatu eta zaintzea.

VI. TITULUA.- ZIGORTZEKO ERREGIMENA

I. KAPITULUA.- XEDAPEN OROKORRAK

31. artikulua.- Ikuskapena eta kontrola

1.- Ordenantza honetan arautzen diren gaien ikuskapena eta kontrola udal albaitaritza zerbitzuek, udaltzainek nahiz beste funtzionario batzuek egin ahal izango dituzte. Horiek guztiak agintaritzaren agentetzat joko dira, eta akta egin edo salaketa-orria bete ahal izango dute; halakoetan, interesdunari jakinaraziko diote, eta eskumena duen organoari bidaliko hura, behar diren neurriak har ditzan eta, bidezko bada, prozedura zigortzailea abiaraz dezan.

2.- Arau-haustek delitu edo hutsegite izan daitezkeela irizten badio, dossier zigortzailea bideratzeko eskumena duen administrazio organoak gertakari berri emango dio jurisdikzio penalari, eta ez du prozedura zigortzailearekin aurrera jarraituko harik eta epailearen ebazpena irmoa izan arte. Bitartean etenda geratuko da preskripzio-epaia.

32. artikulua.- Arau-haustek eta zigorrak

1.- Animaliak Babesteko urriaren 29ko 6/1993 Legean, Arriskutsu izan daitezkeen Animaliak Edukitzearen inguruko Erregimen Juridikoari buruzko abenduaren 23ko 50/1999 Legean, Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren ekainaren 26ko 8/1997 Legean eta horiek garatzeko arauetan, 2005ko apirilaren 22an onetsitako Gasteizko Udaleko Garbiketari eta Hondakinen Bilketa eta Garraioari buruzko Ordenantzan eta ordenantza honetan halakotzat tipifikatutako ekintzak eta ez egiteak administrazio arau-haustetzat joko dira, Tokiko Gobernuaren Eraberritzeko Neurriak biltzen dituen abenduaren 16ko 57/2003 Legearen XI. tituluaren xedatutakoaren ildotik.

2.- Ordenantza honetan aurreikusten den zigortzeko ahalmenaz baliatzen den, lehenik eta behin administrazio-dosierra abiarazi eta bideratu beharko da, titulu honetan eta administrazioaren prozedura zigortzailea arautzen duten lege eta araudietan xedatutakoaren ildotik.

3.- Egileak baino ez dira izango arau-hausteen erantzule, halakotzat joko baitira Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioen Zigortzeko Ahalmenari buruzko otsailaren 20ko 2/1998 Legearen 9. artikuluan zehazten direnak betetzen dituztenak.

1. atala.- ORDENANTZAKO ARAUAK haustea

33. artikulua.- Arau-haustekak

Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen XI. Tituluaren ildotik -Tokiko Gobernuaren Eraberritzeko Neurriak biltzen dituen abenduaren 16ko 57/2003 Legeak aldatua-, honako hauek izango dira arau-hauste tipifikatuak:

1.- Hauek izango dira arau-hauste arinak:

- a. Animaliak identifikatu eta erroldatuta izateko obligazioa ez betetzea.
- b. Animalia askeak propio horretarako ez diren lekuetan edukitzea.
- c. Animaliei haurrek jostatzeko lekuetan (edo propio beraiantzat baimendurik gabeko beste batzuetan) sarrera galarazteko neurri egokiak ez hartzea.
- d. Terraza, balkoi, lorategi, etxabe, pabilioi, trasteleku, ganbara edo beste edonolako lokaletan animaliarik modu iraunkorrean edukitzea, bizileku egokirik gabe daudelarik nahiz bizilagunei enbarazu nabariak eragiteko moduan, edi behar bezala zaindu ezin direlarik.
- e. Animaliei jaten ematea, horrek enbarazuak, kalteak edo osasungaiztasun guneak sor baditzake.
- f. Eraikin eta orubeen jabeek animalia basatuak edo basatu daitezkeenak ugaltzea galaraztera bideratutako neurririk ez hartzea.
- g. Ordenantza honetan jasotako betebeharrak ez betetzea, horrek herritarren higiean, segurtasunean edo lasaitasunean eragin larririk ez badu, edo ordenantzak arau-hauste larri edo oso larritzat tipifikatu gabekoak egitea.
- h. AIEOari, ekainaren 1.eko Euskal Autonomia Erkidegoan Txakurrak Edukitzeari buruzko 101/2004 dekretuaren 3. artikuluan jasotakoaren ildotik, txakurren errolda-identifikazioaren edo errolda-identifikazioan izandako aldaketan berri ez ematea.
- i. Hiriko bide eta espazio publikoetan txakurrak kontrolik gabe uztea eta animalia ezaugarriak aintzat harturik egoki den katea edo uhalarekin - gehienez ere bi metrokoa- lotu gabe edukitzea, ordenantza honetan bertan aurreikusitako salbuespenak salbu.
- j. Ordenantza honetan araututako betebeharrak eta debekuak nahiz bestelako lege eta arau xedapenak urratzea, salbu eta beren izaeratik bestelako kalifikaziorik merezi badute.
- k. Animaliei tratu laidoztagarria ematea edo beren izaerari ez dagozkion portaera edo jarreretara behartzea.

2.- Hauek izango dira arau-hauste larriak:

- a. Animaliak ibilgailu barruan denbora luzez edukitzea.
- b. Animaliak elkarren aurka, edo pertsona edo ibilgailuen aurka oldar daitezkeen zirikatzeko, bai eta oldarkortasun erakuskerian aritu daitezkeen ere.
- c. Animaliak zaintza, defentsa eta erasorako leku publikoan trebatzea.
- d. Udal zerbitzuei informazioa eta agiriak uzteari edo laguntza emateari uko egitea, baita okerreko informazio edo agiriak ematea ere.
- e. Animaliak behar bezala elikatu gabe edo higiean edo osasun baldintza ezegokiak dituzten instalazioetan edukitzea.

- f. Animaliak albaitariaren kontrolik gabe antzutu, mutilatu edo akabatzea, albaitariaren kontrolik gabe edo legeetan ezarritako baldintza eta betekizunak bete gabe.
- g. Txertoak ez jartzea edo nahitaezko diren tratamenduak ez ematea.
- h. Animaliak baimenik gabe saltzea.
- i. Animaliei tratu txarra ematea edo jotzea, eta hartara alferreko sufrimendua, zauriak edo mutilazioak eragitea.
- j. Animaliei, zuzenean edo janarien bitartez, sufrimendua edo alferreko kalteak eragin liezazkieketen substantziak ematea.
- k. Kalteak eragin ditzaketen animaliak zaindu eta gordetzeko nahikoa ardurarik ez edukitzea.
- l. Animaliek ageriko gaitz edo oinaze larriak dituztelarik, albaitaritzalaguntza egokirik ez ematea.
- m. Animaliei administrazio-baimenik ez duten ikuskizunetan parte harraraztea.

3.- Hauek izango dira arau-hauste oso larriak:

- a. Animalien arteko borrokak, eta animaliei heriotza, lesioren bat edo sufrimendua eragin diezaieketen beste ikuskizun legez arautu gabe batzuk antolatu eta egitea.
- b. Eraso-ekintzak medio nahiz substantzia toxikoak emanaz animaliak akabatzea.
- c. Konpainiako edo etxeako animalia bazterrera uztea.
- d. Krudeltasuna, tratu txarra edo sufrimendua berekin dakarten irudiak filmatzea animaliekin, zinema edo telebistarako, simulaziorik gabe.
- e. Arraza arriskutsuetako txakurrak hazi edo gurutzatzea.
- f. Bide eta leku publikoetan janari pozoituak uztea.

Aurrekoa gorabehera, goragoko arau-maila duen legedian jasotzen direnak gailenduko dira zigortu daitezkeen arau-hausteei dagokienez, eta ordenantza honek bere baitan hartuko ditu animaliak babesteari eta txakur arriskutsuei buruzko legeetan gerora egiten diren eguneratzeak ere.

34. artikulua.- Zigorrak

Isun hauekin zigortuko dira aurreko artikuluan tipifikatutako arau-hausteak:

- Arau-hauste oso larriak: 3.000 eurora arte.
- Arau-hauste larriak: 1.500 eurora arte.
- Arau-hauste arinak: 750 eurora arte.

35. artikulua.- Zigortzeko eskumena

Gobernu Batzarrak izango du zigorrak jartzeko eskumena.

II. KAPITULUA.- ZIGORTZEKO PROZEDURA

36. artikulua.- Prozedura

Titulu honetan zehaztutako arau-hausteei dagokienean, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean jasotako zigortzeko ahalmenaren inguruko printzipioetara egokituko da zigortzeko prozedura, eta, aurreko ataletan adierazitako xedapenetako bakoitzak non duen arautze jatorria, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoen Zigortzeko Ahalmenari buruzko otsailaren 20ko 2/1998 Legea edo Zigortzeko Ahalmenaz Baliatzeko Prozeduraren Araudia onetsi zeneko abuztuaren 4ko 1.398/1993 Errege Dekretua aplikatuko da.

37. artikulua.- Bateratasuna auzibide penalarekin

Prozeduraren edozein unetan instruktoareak iritziz gero lege-hauste penaltzat har daitezkeela zuzemenak egiten ari den egintzak, ebazteko eskumena duen organoari jakinaraziko dio, eta hark, arrazoizko irizten badio, Ministerio Fiskalari emango dio egintza horien berri, eta, aldi berean, jakinarazten dion horren inguruan egiten dituen jardueri buruzko lekukotasuna eskatuko.

Era berean, Ministerio Fiskalari eskatuko zaio gauzatu diren jardueren berri eman dezala, administrazio prozeduraren gai diren egintzei buruz auzibide penala jarraitzen ari dela jakinez gero. Komunikazio bera eskatuko da administrazio prozeduran aintzat hartutako egintzen emaitza edo ondorio diren gertaerengatik bideratzen bada auzibide penala.

Ministerio Fiskalaren komunikazioa jaso ondoren, prozedura zigortzailea ebazteko eskumena duen organoak epaileak ebazpen irmoa eman arte hura etenda uztea erabakiko du.

Administrazio prozedura zigortzailea eteteak ez du galaraziko hartutako zuhurtasunezko neurriei eustea, baldin eta auzibide penalean erabakitakoekin bateragarri badira. Auzibide penaleko zuhurtasunezko neurriak aski badira administrazio prozedura zigortzailean aintzat hartutako zuhurtasunezko helburuak lortzeko, orduan ez dira bateragarritzat joko.

Zuhurtasunezko neurriei eusteko nahiz halako neurriak hartzeko egintzaren berri eman beharko zaio Ministerio Fiskalari.

Nolanahi ere, epailearen ebazpen penal irmoa dela medio frogatutzat jotzen diren egintzak lotesleak izango dira administrazio organoentzat, bideratzen dituzten prozedura zigortzaileetan.

Administrazioak ofizios berraztertuko ditu ebazpen penalean frogatutzat jotakoekin kontraesanean dauden egintzetan oinarritutako administrazio ebazpenak, ofiziosko berrikuspen prozedurei buruzko arauak aintzat harturik.

38. artikulua.- AIEOari jakinaraztea.

Behar izanez gero, prozedura zigortzaileari amaiera ematen dion ebazpenaren kopia bat bidaliko diote zigortzeko eskumena duten organoek AIEOra.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indargabetuta geratuko dira ordenantza honen kontrako diren udal ordenantza, araudi eta bandoak oro.

AZKEN XEDAPENA

Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean ordenantza hau.

I. ERANSKINA

ANIMALIA ALDI BATEZ LAGATZEKO AGIRIA

Animaliak Babesteko urriaren 29ko 6/1993 Legearen 16. artikuluan eta Animaliak Edukitzeari eta Babesteari buruzko Udal Ordenantzaren 16. artikuluan xedatutakoaren ildotik, beherago adierazten den animalia pertsona honi emango zaio aldi baterako:

Izen-deiturak:-nortasunagiria:

helbidea:probintzia:

kalea:telefonoa:

e-posta:

Animaliaren erregistro zk.:; ezaugarriak:

arraza:ile:kolorea:sexua:

trebetasuna:adina, gutxi gorabehera:

Armentia **Animaliak Babesteko Zentroan sartu zen** eguna:
.....

Behean izenpetzen duenak hitz ematen du animalia hori zainduko duela, berorren ardura guztia bere gain hartuko duela eta, hala eskatuz gero, Animaliak Babesteko Zentrora itzuliko duela.

Halaber, animalia identifikatu gabe badago, eta Animaliak Edukitzeari eta Babesteari buruzko Udal Ordenantzaren 5.1. artikuluan eta hurrengoetan finkatutako kasuetan, hitz ematen du Armentia **Animaliak Babesteko Zentro honetara etorriko dela** identifikazio-mikrotxipa jar dakion ofizioz, hilabeteko epea igarotzen delarik animalia bertan sartu zenetik, edo, bestela, beste albaitaritza zentro edo klinika batean jarri diotela egiaztatzen duen dokumentazioa aurkeztuko duela.

Animalia identifikatuta badago eta aldi baterako lagatzea behin betiko adopzio bihurtzen bada, Animaliak Babesteko Zentrora etorri beharko du, esku aldatzea formalizatzeko.

(lekua eta data) _____

Irakurri dut, eta onartzen dut: _____

(Animalia onartzen duenaren izenpea)

II. ERANSKINA

ERASOA GERTATUZ GERO NAHITAEZ ANIMALIA BEHATU BEHARRA DAGOELA JAKINARAZTEA

Animaliak Babesteko urriaren 29ko 6/1993 Legearen 11. artikuluan xedatutakoaren arabera, besteak beste udalek pertsoneri eraso egin dieten animaliak bakartu edo itxian atxikitzeko agindua eman beharra daukate, behaketa egin dakien.

Halaber, Animaliak Edukitzeari eta Babesteari buruzko Udal Ordenantzaren 17. artikuluan zehaztuta dago zauriak eragin dituen animalia jabeak edo hura daukanak jarraitu beharreko prozedura, baita hori ez betetzeak berekin ekarriko duen zigorra ere.

Horrenbestez, hauxe jakinarazten dizugu:

Lehen: _____ jaunak/andreak -helbidea: _____; kalea: _____; nortasun-agiria: _____; tel.: _____ - eraso egin duen animalia jabe edo edukitzailea den aldetik -animaliaren identifikazio-zk. (identifikatu beharreko animalia bada): _____, arraza: _____ - albaitari ofizial edo gaitu baten behaketapean jarri beharko du animalia hori 24 ordu baino lehen, hamalau egunez. Behaketa bukatu ondoren, albaitariaren ziurtagiria edo txostena igorri beharko du _____ Udaleko _____-ra.

Bigarrena: Edozein argibide edo informazio gehiago behar izanez gero, _____ Udaleko _____-ra jo beharko duzu -helbidea: _____-, edo telefono honetara deitu: _____.

Hirugarrena: Agiri honetan adierazitako betebeharra betetzen ez baduzu zeure kontrako dossier zigortzailea abiarazi ahal izango dela jakinarazten eta ohartarazten dizugu.

(lekua eta data) _____

Irakurri dut, eta onartzen dut: _____

(Animaliaren jabearen edo hura daukanaren izenpea)

III. ERANSKINA

ALBAITARIAREN TXOSTENA, KOSK EGIN DUEN ANIMALIA DELA ETA

ALBAITARIAREN TXOSTENA, KOSK EGIN DUEN ANIMALIA DELA ETA

Albaitaria:

Kolegiatu zk.:

Helbidea: Tel.:

ANIMALIAREN DATUAK

ANIMALIAREN DATUAK			
Jabea		NAN	
Helbidea	Udalerría	Telefonoa	
Espeziea	Identifikazioa	Izena	Arraza
Adina	Sexua	Erantzukizun zibileko aseguruá	

ZIURTATZEN DUT:

Goian adierazten den animalia zaindu eta behatu dut, honako egun hauetan:, eta ez diot zoonosi-gaixotasunen bat izan dezakeela pentsaraz lezakeen inongo sintomarik atzeman. Horrenbestez, amaitutzat eman dut behatu eta zaintze aldia.

Izenpea eta zigilua Lekua eta data